

Betihereko aldia helburu

Umea nintzela Berrizko plazatik gertu zegoen kioskoari *Pepillo* deitzen genion. Senar-emazteak aritzen ziren bertan lanean, baina dendak senarraren izena zuen. Mandarina bat zuritu bitartean, Encarnak gominolak begiratu ere egin barik zenbatzen zituen. Balea beltza goragoko maila batean zegoen, baina marubiak, atzamarrak eta arrautzak bost pezetaren truke eskuratzen genituen. Ez zekiten euskaraz, eta, beraz, beti gaztelaniaz aritzen ginen beraiekin. Encarnak euskarazko berbaren bat edo beste bazekiela akordatzeko naiz, baina ez elkar euskaraz ulertzeko beste.

Asteburuetan gurasoekin in-

guruko herriren batera joaten ginen batzuetan, eta domeka gozokiak erosteko eguna zuten. Abadiñoko Traña-Matiena auzoan zegoen *Uneibi* gozoki dendan lehenengoz sartu nintzenezan ohartu nintzen bazirela euskaraz zekiten gozoki saltzaileak ere. Beste mundu bat iruditu zitzaizdan, eta inguru hartan genbiltzako zekiten gozoki saltzaileak ere. Beste mundu bat iruditu zitzaizdan, eta inguru hartan genbiltzako zekiten gozoki saltzaileak ere. Beste mundu bat iruditu zitzaizdan, eta inguru hartan genbiltzako zekiten gozoki saltzaileak ere.

Umetatik jaso genuen guk euskaraz erosten, eta mundua hala

ulertu genuen harik eta gaztelania ere gureganatu genuen arte. Ondo ikasi genuen herriko tren geltokiko leihatilan nori egin geniezaikeen euskaraz eta zeini ez. Amak Conchiren okindegira bidaltzen gintuenean ogi integrala eta ogi zuria gaztelaniaz nola esaten ziren ondo ikasita joaten ginen ahizpa eta biok. Urteetara jakin nuen Conchiren senarrak euskaraz ondo baino hobeto bazekiela. Ez zuen ogirik saltzen, baina kalean kasu egiten zigun aldirorok euskaraz eginez gero euskaraz hitz egiten zigun.

Guk euskaraz egiten genielako edo haiek euskaraz egiten zigutelako joan ginen gure inguruan euskaraz aritzeko espazioak ira-

bazten. Ordutik hona hainbat lekutan sartu naiz lehenengoz eta makina bat jendekin egin dut berba lehenengoz aldiz. Batzuei aurreiritziz egin diet gaztelaniaz eta euskal hiztunak zirela oharrean pena eta lotsa puntu bat sentitu izan dut. Beste askori aurreiritzia alboratu nahian euskaraz egin diedanean ez dut beti erantzunik onena jaso, baina saiatu gabe ezin jakin. Baina dirira euskaraz erantzun ez didaten

arren, euskaraz aritzeko aukera eskaini didatenak, eta horrela jarduere ere ikasi dut denborarekin.

Euskaratik eta euskaraz bizi nahiak bultzatu nau ni Euskaraldian izena ematera. Hamabost eguneko ariketak hizkuntza ohi-turak aldatzeko edo indartzeko balio diezagula espero dut. Gutako bakoitzak gure ahalmen eta borondatek ekingo diogu ari-ketari eta bidean elkartuko gara. Egin gabeko bidea ez da bide bihurtzen sasizatik lehenengoz aldiz pasatutakoan, baina joan-etorriak metatu ahala bihurtzen da bidea bide. Hamabost eguneko emango diguten aukera baliatuko dut euskaraz bizitzeko aukerak zabaltzen joateko. Badakit uste baino Conchiren senar eta gozoki saltzaile euskaldun gehiago dudala inguruan eta denekin aritu gurako nuke euskaraz, Euskaraldian hasitako bidea euskararen betiereko aldi bihurtzea helburu.



NAHINONDIK
Maite Berrioizabal
Berrizbeitia



Egin gabeko bidea ez da bide bihurtzen sasizatik lehenengoz aldiz pasatutakoan, baina joan-etorriak metatu ahala bihurtzen da bidea bide

HILBERRIA



Manolo Legina.
Begoñako azken koplaria

Ibai Maruri Bilbao

Bere sorteria Bilbok anexionatu zuen urtean jaio zen Manolo Legina: 1925ean, Begoñako Arbolantxa auzoko Atxeta baserrian. Ingaruko jatorrizko euskaraz hitz egiten zuen. Begoñan bertan, Karrantzan eta Ipar Euskal Herrian hainbat erromeria alaitutakoa da. Astelehenean zendu zen.

Ez zuen musika ikasketarik jaso. Belarritz ikasi zuen trikitia jotzen, gaztetan. Artxandako Gillermin pandero jotzailearekin, Txilibrin eta Leon Bilbao albokariarekin eta Maurizio Aldeiturriaga pandero jotzailearekin sarri ibilitakoa da. Hainbat lagunekin Alaitasunaren Karaba osatu zuen eta Garaizarko Mahatsorriak abesbatzako kide ere izan da. Gaur egingo diote hiletta, Begoñako basilikan, 19:00etan.

Irudia • Sukarrieta



Integrazioaren zain, lan baldintzez kexu dira

Busturialdeko Ur Partzuergoko langileek euren egoera «normalizatze-ko» eskatu zuten eguaztenean, Sukarrietan —irudian—. 2018an partzuergoak Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoan integratzeko asmoa agertu zuen. Integrazioa ez da gertatu oraindik, baina, beharginek salatu dute, lan karga «handitu» egin zaie: «Gure baldintzek eta langile kopuruak berdin jarraitzen dute; lan karga handiagoa dugu, ez dugu behar beste langile, eta lan baldintzak nekezagoak dira». ANE MARIURI/ARANSOLO/HITZA

HILBERRIA



Angel Mari Unzueta.
Bizkaiko Elizaren lemazaina

Ibai Maruri Bilbao

Angel Mari Unzueta urte askotan Bilboko gotzain izateko kinilietan egon izan da. Baina, lehenik Joseba Segurak Bizkaiko bikario nagusiaren karguan lekukoa hartu zionean eta ondoren Segura Bilboko gotzain laguntzaile izendatu zutenean, aukera guztiak galdu zituen. Dena den, apezpiku izatea ez zegoen haren asmoen artean. Edozelan ere, heriotzarekin Bizkaiko Elizak «lemazaina galdu du». Hala

esan zuen Juan Mari Uriarte Donostiako gotzain izandakoak, Unzueta hil dela jakin zuenean. Zapatuan zendu zen, 67 urte zituela, Bilbon, Begoñako abade etxean.

Durangoan jaio zen, 1952an. 11 urterekin sartu zen seminarioan. 1979an egin zen abade. Deustuko Unibertsitatean Historia eta Geografia ikasketak egin zituen lehenengoz; Teologiakoak gero. Alemanian egin zuen doktoretza tesia, Ruhreko Unibertsitatean. Oso ondo menderatzen zuen alemana. Erromako Gregoriar Unibertsitatean Eliz Ikasketak egin zituen. 2006tik 2018ra, bikario nagusi izan da. Ordutik, Urkiolako santutegiko abadea izan da. Eta irakasle ere ibili da: Gasteizko Teologia Fakultatean eta Begoñako Andra Mari irakasle eskolan.

Abade izatea zuen lehen bakoitia, kazetaritza bigarrena. Bilbo Herri Irratian esatari ibili zen 1970eko hamarkadan. Euskarazko lehen irratsaioen bultzatzaileetako bat izan zen, eta Bizkaia Irratiaren sorreran parte hartu zuen —orain ere kolaboratzen duen—. ETArekin bukaerako bidea errazten lagundu du. 2011n, Aieteko Bake Konferentzian Elizaren ordezkaria izan zen. Euskal gizartearen «adiskidetzear» lortzea zuen orain ametsa. Astelehenean egin zituen hiletta, Durango; bihar, *In Memoriam* meza.



Bizkaiko Hitza-k irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tarreak barne, eta **Bizkaiko Hitza**-k mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Bizkaiko Hitza. Urribarte 18, 3-C. 48001, Bilbo. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: bizkaia@hitza.eus